

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Jendaurrean jartzea hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen 5 zenbakiko udal zerga-ordenantzaren aldaketa

Udalbatzak, 2016ko uztailaren 28ko osoko bilkuran, behin-behineko onarpena eman zion hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen 5 zenbakiko udal zerga-ordenantza aldatzeari (16279C2154 espedientea).

Erabakia eta haren aurrekari guztiak jendaurrean egongo dira udaletxeko idazkaritzan hogeita hamar egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, epe horretan interesdunek aukera izan dezaten espedientea aztertu eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, zerga ordenantzak aldatzeko erabakia behin betiko bihurtuko da, hala xedatzen baitu martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak, toki ogasunak arautzen dituen legearen testu bateratua onartzen duenak, 17.3 artikuluan.

Amurrio, 2016ko urriaren 3a

Alkatea

JOSUNE IRABIEN MARIGORTA